

Inmaculadak haurtzaindegi zerbitzua zabalduko du

■ Aurten 0 tik 3 urtera bitarteko umeak ere hartuko ditu ■ Irailetik aurrera izango da martxan ■ Interesatuak Inmaculadako 943-550233 telefonora dei dezakete.



Inmaculada Haurtzaindegiko gela bat.

INMACULADA Ikastetxeak Irailetik aurrera 0-tik 3 urte bitarteko umeentzat haurtzaindegia zabalduko du. Orain artean 2 urtetik gorako haurrak hartzen zituen Inmaculadak, baina, datorren urterako Jaurilaritzako Hezkuntza Delegazioari txikiagoak hartu ahal izateko behar den baimena eskatu zioten. Delegazioko ordezkariak oniritzia eman zion Inmaculadari, bere ikastetxera egin zuten bisitaren ondoren.

ESKARI HAUNDIA

Sor Felicidad, Inmaculadako zuzendariak esan digunez, Hernanin zerbitzu honen eskari handia dagoelako erabaki zuten haurtzaindegi hau zabaltea. Oraindik ez dakite zenbat haur hartuko dituzten. Momen-

tuz interesatuen datuak jasotzen ari dira eta gero ikusiko dute zenbat hartu ditzaketen.

ORDUTEGI FLEXIBLEA

Haurtzaindegi berriaren ordutegia, goizeko 8:00etatik arratsaldeko 18:00ak artekoa izango da. Hala ere, Sor Felicidadek esan digunez, "ordutegi hau flexiblea da, zeren eta dagoeneko izan dira guraso batzuk, euren lana dela eta ea haurrak zertxobait lehenago utzi ditzaketen galdetu dutenak". Ahal den neurrian, zerbitzu hau erabiltzen dutenen beharrei egokitzen saiatuko dira.

ELIKADURA KONTROLA

Janariari dagokionean, haur txikiaren kasuan, biberoiak eta abar, gurasoek beraiek eraman

beharko dituzte. "Haur bakoitzak pediatrak agindutako alimentazio ezberdina izaten duela, eta hori gurasoek kontrolatzen dutelako". Gurasoek ekarritakoa gero ikastetxean bertan berotuko da, eta haur bakoitzari tokatzen zaion garaian eman. Bazkaltzeko euren kabuz modaltzen diren haurrak berriz, jangelan bazkalduko dute.

IZEN EMATEA

Interesatuta dauden gurasoek Inmaculada Ikastetxera deitu dezakete, 943-55 02 33 telefonora. Bertan, bere datuak hartu eta informazio gehiago eman go zaie. Momentuz ez dute jarri eperik izena emateko. Aurtengo ikasturtea bukatu artean behintzat, informazio telefono hau zabalik izango da. □

Hirigintza komisioak Sagastialdeko etxebizitza konbenioa aztertuko du

■ Gaur eguerdiko ordubatean bilduko dira ■ Ostegunean plenora eramango da gaia.

SAGASTIALDEN Babes Ofizialeko etxeak egitekoak dituzte. Denera, 90 inguru eta horietatik ia erdiak bertakoentzat izango dira. Udalak pre-

miazko hirigintza batzordea konbokatuta du gaurko proiektua arautzen duen konbenioa aztertzeko. Ostegunean, gaia plenora joango da. □

'Txinpartak' koadrila Goizuetara joango da oinez

■ Datorren larunbatean joango da ■ Urtero bezala, gero Goizuetan sagardo lehiaketa egingo du.

'TXINPARTAK' koadrilak, orain duela 26 urte hasita, urtero egiten du Hernanitik Goizuetarako ibilaldia. Aurten, datorren larunbatean joango dira, goizeko 07:00etan plazatik ate-

rata. Goizuetan, elkarte bazkalduko dute, 'Txato' Uralde sukaldari dutela. Gero, sagardo lehiaketa (bakoitzak bi botila eramaten ditu). Buelta autobusean egingo dute. □

Floridako pala txapelketako azken fasea aste honetan

■ Gaur eta bihar final laurdenak jokatu dira; ostegunean finalerdiak eta igandean finala.

GAUR final laurdenetako bi partida jokatu dira. 19:30etan Bersaitz-Ibon / Juanma-Miguel. 20.00etan Fredi-Adolfo / Apezetxea-Morris.

Bihar, berriz, partidu bakarra, 19:30etan Nani-Jonkar / Lolo-Igor. Finalerditako partidua ostegunean 19:30etan izango da. Finala igandean 11:00etan. □

HAUR KANTARI TXAPELKETA

Hernanin izango den finala aurkezteko prentsaurrekoa asteazkenean

■ Euskal Herri osoko 200 ume arituko dira kantari ■ Finala, ekainaren 9an, kiroldegian.



Komunikazioan lan egiten duen jendeak bazkari ederra egin zuten Kronikaren lehen urteurrena ospatzeko. Eskerrik beroenak Patxi Iriondori eta Peña Otañori, lagundu izanagatik.

LAGUNTZAILE IZAN NAHI DUT

Markatu X batez zure aukera 5.000 pta
 25.000 pta
 pta

HERNANIK
kronika

Izena _____ Abizenak _____

N.A.N / N.I.F _____ Helbidea _____

P. kodea _____ Herria _____ Herrialdea _____ Tel. _____

Banku edo aurrezki kutxa _____ Titularra _____

Titularren helbidea _____

Entitateak Sukurtsala Kontua

KRONIKAREN kontura diru-sarrera: EUSKADIKO KUTXA 3035 0025 81 025007767.2
KUTXA 2101 0041 01 001096804.8

BONOA UZTEKO: Kronika, Dobera, Pana, Iruretagoiena, Konde eta Zinko Enean. Nahi izanez gero telefonoz (943 33 08 99), postaz (Larramendi 11) edo E-mailez (kronika@topagunea.com) egin dezakezu.

Bai, ezta?

Hirugarren munduarentzako laguntza proiektuen erakusketa jarriko dute Biterin

■ Erakusketaren helburua da udal aurrekontuaren % 0,7-a zertan inbertitzen den erakustea eta elkartasun internazionalista bultzatzea ■ Gaurtik ekainak 2 arte.

Udal aurrekontuaren %0,7 a jaso duten Gobernu Kanpoko Erakundeek Kooperaziorako Proiektuen erakusketa egingo dute Biterin, aste honetan. Erakusteka honek bi helburu nagusi ditu: %0,7 hori nora


dijoan erakustea batetik, eta hernaniarren beste herriko sentimena eta elkartasun internazionalista indartzea. Batez ere, janari, hezkuntza edota oinarrizko osasun beharrik dituzten herriekin.

HITZALDIAK

Bi hitzaldi ere antolatu dira. Bat ostegunean, 19:00etan, aurreko onartutako kooperaziorako proiektuak azaltzeko. Bestea ekainaren 6an, El Salvadorreko egoerari buruz. □

■ BOLAKO LEHENDAKARI SARIA

Hernaniarrak ondo, baina, zegamarra aurretik lehenengo tiradan



Bolariak zai-zai kontrarioak zenbat botako. Datorren igandean festetako tiraldia dago, arratsaldean.

FLORIDAKO bolatokian jokatu zen atzo Lehendakari Sariko lehen tiraldia. Etxekoek irabazi ez, baina, oso paper txukuna egin zuten. Tirada ere ia ezin zitekeen berdina izan: lehenbiziko hamarrekin lau briletako alde

bakarrak dute: batez, alegia. Aurrena, Alfonso Retegi zegamarra egin zuen, 44 brila botata; bigarren Jose Mari Usabiaga (CDH) gelditu zen, hau ere 44 brilekin; hirugarren eta laugarren bi Elur-Txoriko: Jose Ugalde eta Migel Buru-

gain, 43narekin; gero Ibon eta Antonio Miner Ur-Miatik, zazpi eta bederatzigarren, 42 eta 41 brilakin. Txapelketa datorren igandean erabakiko da Olaberriaren. Lehenengo biak Euskal Herriko txapelketarako sailkatuko dira. □

■ MUS TXAPELKETAK

Santa Barbaran, final laurdenak eta Aralarren finalaurrea eta finala

STA. BARBARA ELKARTEA
Santa Barbara Elkarteko mus txapelketan bukatu da sailkapen fasea. Orain azken faseetan sartuko da. Aste honetan final-laurdenak jokatu dira. Partidak:
Maiatzak 29. asteartea:
Helio-Joseba / Zelarain-Felipe

Xaxi-Karlos / Arnaiz-Fernando
Maiatzak 23. asteazkena
Manu-Joxetxo / Iñigo-Jokin
Sesma-Kaki / Txarli-Iñaki

ARALAR TABERNA
Aralar Tabernako mus txapelketa aste honetan amaituko da. Hasi ziren 80 bikotetik, lau

onenak bakarrik gelditzen dira, eta hauek aste honetan egingo dituzte egin beharreko lanak. Astelehenean finalerdiak jokatuko dira; ostegunean finala eta 3-4garren postuak. Finalerdiak:
Maiatzak 28. astelehena:
Oskoz-Eroizenea/Arizmendi-Arizmendi
Apeztexea-Alzaga / Goñi-Karrion

Getariko txakolina Santa Barbara elkartean

■ Datorren larunbatean izango da, eguerdiko 13:00etan ■ Txakolin probaketa hau urteroko ohitura da.

■ PELOTA

Amaia Martinez txapeldun, paleta goman; eta Jon Elizalde, trinketean

■ Hernaniko pelotariak 15 final ofizial jokatu dituzte aurtengo denboraldian.

PELOTAN bi txapel gehiago etorri dira Hernanira. Amaia Martinez-Mertxe Gurrutxaga bikotea Federazio arteko txapelketa gelditu dira, Arabari irabazita. Torneo honetan hegoaldeko lau probintziek jokatzen dute elkarren kontra.

JON ELIZALDE, EUSKAL HERRIKO TXAPELDUN
Jon Elizalde gaztea Euskal

Herriko txapeldun gelditu da, buruz-buru, trinketean. Elizalde Villabonako *Behartza* taldekoa zuen kontrario eta 35-10 irabazi zion.

15 FINAL ETA 6 TXAPEL
Hernaniko pelotariak denboraldi ona daramakite. Dagoneko 15 final jokatu dituzte txapelketa ofizialetan, eta dena 6 txapel jantzi dituzte.

MENDIRIZ MENDI

Uztailean Alpeetara joan nahi dutenentzat bilera, bihar, 20:00etan.

■ Uztailaren 27tik 31ra da plana ■ 4.159 metroko mendia eta Via Ferratak egingo dituzte, besteak beste.

MENDIRIZ Mendik Alpeetara joateko *espedizioa* antolatu du. Literako autobusean joango dira eta 40 lagunentzat da-go tokia. Asteartean, lokale-

an bertan bilera egingo dute planaren berri zehatza emateko: zer eraman, aseguroak, alojamendua, prezioa, otorduak... Lokala Iturregi plazan dago.

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:30etan: Monika Lebisikiren bisita. **11:40etan:** Maria Jesus Sendagile naturistarekin hizketan. **18:00etan:** Unibertsitateko Euskal Adarraren irratsaioa

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK Taxiak: 943 550093 Udaltzaingoa: 943 333288 DY: 943 464622 Anbulatorioa: 943 557750 Jokalari anonimoak 943 331103	✚ FARMAZIAK Egunez: Irigoien Elkano 2 ☎ 943 552087 Gaez: De Miguel Lasarte. Nagusia 32 ☎ 943 362556 ✚ ASTEARTEA Egunez: Sagastiberri Urbietan, 7 ☎ 943 552941	Gaez: Rodriguez Lasarte, Nagusia 42 ☎ 943 361774 ✚ ASTEAZKENA Egunez: Gomez Nagusia 15 ☎ 943 554892 Gaez: Gil Nagusia 24 ☎ 943 361529
--	---	---

IRAGARKI MERKEAK


■ Pisu bat salgai Mañe i Flaquerren. Interesatuak deitu: ☎ 658.71 07 27

JAIONE Kongelatuak



20 pztako partaidetza oparitzen dut Eguberritako Loterian.


ELKANO KALEA, 1
Tel.: 943 55 07 87
20120 HERNANI



mikel armendariz proiektu eta instalazio elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

Zuri esker

GOIKO ARDOAK



EL COTO

Joseba Gorostegi Goikoetxea
Tel. 943 55 19 15 - Mobilak 657 77 71 46